



Borrokan jarraitzen dute

Iraila iristearekin batera, protestei heldu diete berriro Lasarte-Oriako pentsionistek; 100 lagun bildu dira Okendon / 2

TXINTXARRI

Asteburu bereziena

Ama Guadalupekoren omenezko jaiak ospatu ditu Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak / 6-7

Erdi Aroko giroak hartuko du Lasarte-Oria asteburuan; gaur hasiko da Xacobeo azokaren IV. edizioa / 5

Taldea sortu, eta entrenatzeari ekin dio Ostadar Boleibolak; urtarrilean hasiko dira ligan konpetitzen / 10

2^{mó}
graduatu, erreflexuen/
aurkako lenteekin / 99€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaukeriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multiopicasgipuzkoa.com



Lasarte-Oriako pentsionistak Okendo plazan elkartzen dira, astelehenero, pentsio duinen alde borrokatzeko. TXINTXARRI

Pentsionistek Okendon hasi dute ikasturtea

Ez dute amore emango; pentsio duinak lortu arte borrokan jarraituko dute Lasarte-Oriako pentsionistek. Agerraldia egin dute astelehen goizean, herriko plazan eta 100 lasarteoriatar batu dira mobilizazioan

Maddi Zaldua

Udako etenaldiaren ostean, pentsioen borrokari eutsi diote pentsionistek, eta Okendo plazara atera ziren astelehen goizean. Irmotasunez jarraituko dute borrokan Lasarte-Oriako pentsionistek. Horrela azaldu zuten astelehen goizean Okendo plazan egindako agerraldian.

Espainiako egoera politikoarekin kezkatuta, hauteskunde berriek, pentsio sisteman ondorio "txarrak" izan ditzakeela azpimarratu zuten.

Gobernua pentsio sistema publikoaren, zerbitzu publikoen eta ongizate estatuaren murrizketen alde aritzea "onartezina" da pentsionistentzat.

Gogora ekarri zuten, hauteskundeetan, gizarte eskubideak bermatuko dituen gobernu aurrerakoi eta herritar baten nahia azaldu zuela gizarteak, baina, egun, milaka pentsionistek argindarraren, gasaren eta medikamentuen kostuak ezin ordaindu jarraitzen dutela. "Benetako larrialdi egoera"

bizitzen ari dira. Horregatik, "bizitza duina ziurtatzeko", 1080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen jarraituko dute.

Horrekin batera, sexuen arteko arrakala ere agerian utzi zuten, eta horrekin amaitzeko nahia ere azaldu zuten Okendo plazan egindako agerraldian.

Alderdi politikoei erantzukizuna eskatu diete pentsionistek: "Ezberdintasun eta konfiantza ezaren aurrean,

milioika pentsionisten beharrei kasu egin behar diete".

Urriari, Madrilera

Urriaren 16an pentsionisten manifestazioa egingo da, Madrilera, eta bertara joateko deia egin dute. Goizeko 11:00etan abiatuko da martxa Sol-etik, eta Diputatuen Kongresuan amaituko da. Horren ostean, kontzentrazioa egingo dute Kongresuaren aurrean.

Hiru hitzaldi, Nagusilanen eskutik

Astearte arratsaldean, komunikazio asertibo eta eraginkorrari buruzko hitzaldia egin zuten kultur etxean. Nagusilan, hirugarren adineko pertsonen giza boluntariotzan lan egiten duen taldeak antolatu du hitzaldia, eta Karnele Gurrutxaga psikologoarekin komunikazio asertiboaz eta eraginkorraz hitz egiteko aukera izan dute.

Horrekin batera, beste bi ekintza gehiago ere aurrekusi dituzte datozen egunetarako. Hilaren 24an, estresaren eta antsietatearen inguruko bigarren hitzaldi bat izango da, eta urriaren 8an, berriz, hirugarrena. Azken horretan, emozioek gure gorputzean duten eraginaz arituko dira.



Udal ordezkariak azaleko eta lurazpiko edukiontziak dauden eremu batean. TXINTXARRI

Edukiontzi sistemai buruzko informazioa eskainiko du Udalak

Informazio saioak hurrengo astetik aurrera egingo dira. Lehenak Oria eta Basaundi Bailara auzoetan dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako udalak zabor bilketa sistemari buruzko galdeketa egingo du ikasturte honetan, lurazpiko edukiontziak edo azaleko edukiontziak erabiliko diren erabakitzeko. Parte-hartze prozesu hori martxan jarri baino lehen, informazio saio batzuk antolatuko ditu auzoetan.

Elhuyar enpresak zuzendutako saioak izango dira. Bi orduetan, ezarri ahal diren bi sistemai buruzko zehaztapen eskainiko dira txosten tekniko eta garbiketa enpresaren txostenean oinarritutakoak. Zerbitzuetako tekniko bat ere izango da

herritarren galderei erantzuteko. "Informazio aseptikoa izatea nahi dugu, konnotazio politikorik gabea", adierazi dute udal ordezkariak.

Datuez gain, lanketa txiki bat ere egingo dute. "Horren bitartez, herritarrak sistemen alde on eta txarrei buruz kontziente izango dira", azaldu dute.

Udalak bando bidez jakinaraziko du auzo bakoitzeko bilera non eta noiz den. Lehen bi saioak irailaren 24an eta 26an izango dira, 18:30ean, Oria eta Basaundi bailaran.

Udal ordezkariak herritarrek bileretan parte hartzea espero dute. "Guztioi eragingo digun erabakia izango da".

Irailaren 25ean epaituko dute, berriz, Ibon Fernandez Iradi

Larriki gaixorik dago Fernandez Iradi Lannemezanen, eta kartzela zigorraren suspentsioa eskatuko dute

Txintxarri

Esklerosi anikoitzak jota, larriki gaixo dago preso lasarteoriatarra, Frantzian. Osasun arazoa artatzea eta kartzelako egonaldia "bateraezinak" direla behin baino gehiagotan salatu dute presoaren senide eta lagunek, eta datorren asteazkeneko epaiketan ere eskaera berdinari eutsiko diote.

Kartzela zigorraren suspentsioa eskatuko dute. Osasun arazo

oso larriak dituzten presoek eskatu dezakete, salbuespen neurri gisa.

16 urte daramatza kartzelan herritarrak, eta gaixotasuna detektatu ziotenetik, ez du artatzeko behar duen tratamendurik jasotzen.

Epaiaketaren ostean, Sare kolektiboak prentsaurrekoa egingo du, prozesuaren berri emateko. Irailaren 27an izango da hitzordua, ostirala, Antonio Mercero aretoan, 19:30ean.



Lasarte-Oria Traileko kide Joseba Iparragirrek eta Javi Olazagoitiak eman dute kirol ekimenaren berri. TXINTXARRI

Mendiaz gozatu nahi duten herritar guztientzat

Mendi martxa antolatu du Lasarte-Oria Trail kirol elkarteak irailaren 29an, igandea. Bi ibilbide prestatu ditu: motza edo familiarra, 12,5 kilometrokoa; luzea, 25 kilometrokoa. Herri ingurua ezagutzea eta kirol jarduera osasuntsua bultzatzea dira antolatzaileen helburu nagusiak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Mendizale: hartu errotulagailu gorri bat, joan egutegira, eta biribildu irailaren 29a, igandea. Kirol ekitaldi bat prestatu du Lasarte-Oria Trail elkarteak egun horretarako: Lasarte-Oriako Mendi Festa. "Herri ingurua ezagutarazi nahi dugu, eta kirol jarduera osasuntsua bultzatu", nabarmendu zuten Joseba Iparragirre eta Javi Olazagoitia antolatzaileek, asteartean, Antonio Mercero aretoan.

Herritar guztiei egin nahi diete tokiak. Bi ibilbide diseinatu dituzte: motza edo familiarra,

12,5 kilometrokoa; eta luzea, mendian ibiltzera ohituago daudenentzat, 25 kilometrokoa. Goizeko bederatzietan eta zortzietan irtengo dira, hurrenez hurren, Okendo plazatik.

Izen-emateak, erritmo onean

Internet bidez izena eman daiteke egun hauetan, www.kirolprobak.com atarian. Ibilbide luzea egin nahi dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta 16 urte baino gehiago eduki. Ibilbide familiarra haurrekin joateko dago pentsatua: txikienek 4 euro ordaindu beharko dituzte; helduek, 10.

Kirol ekitaldiaren aurreko egunetan, irailaren 25etik 28ra, kultur etxeko kafetegia zabalduko dute izen-emateak egiteko. Ordutegiak, hauek: 11:00etatik 13:00era -28an soilik- eta 17:00etatik 20:00etara -aipatutako egun horietan guztietan-.

Mendizaleek txartel bat jasoko dute proba hasi baino lehen. Kontrol postuetan zigilatu beharko dute, zozketetan parte hartu nahi badute. Herriko komertzio askok eskaini dituzte produktuak. "Izugarria izan da haien laguntza; ez dugu ezezko bakar bat ere jaso", aipatu zuten.



NEURE KABUZ

NEREA SEGURA

Kosk egin!

Gure lehen janaria amaren titia izan zen. Handik gutxira biberioa, ahia, purea eta potekoa iritsi ziren. Orain ...*taitantos* dituzu eta murtzikatu gabe jarraitzen duzu. Haginkariari hozkada bat emateko gai baginen, zergatik birrintzen ziguten dena? Inboluzionatzen goaz.

Gaur, jatea hizpide hutsa da. Oso denbora gutxi duzu eta sardeska bakoitzak 40 aldiz mastekatzea saihesten baduzu, hogeita bat minutu aurrezten dituzu. Ba, jakin, zure ahoa ez dela birringailu hutsa. Jakia ahoan dagoen bitartean, listua jariatuz doa eta infekzioen kontrako lehen babesa aktibatzen da; garunera eta digestio-aparatura seinaleak bidaltzen dira, zuku gastrikoak jario daitezten; eta elikagaiaren pausoa lubrifikatzen du. Baina zuku, *tragabolas* bat gisa, bazkaria irensten duzu minutu gutxitan asetu gabe. Loditasunaren eta diabetesaren arriskua handituz.

Eredu tipikoa laranja-zukua da. Fruta gosaltzen duzunean, ale batekin nahikoa duzu. Zukuarekin aldiz, bi edo hiru laranja darabiltzazu. Basoa uraz eta C bitaminaz (2-3 bider) betetzen da; baina zuntza zukugailuan geratzen da. Hots, azukrea libre geratzen da (2-3 bider) eta bizpahiru tragotan edan duzu. Errazago eta azkarrago xurgatzen delarik eta zu asetu gabe.

Boliz eta azazkalez aparte, kosk egiten dakizu? Barazkiak purean jaten dituzu, tomateak saltsan. Moldezko-ogiari azala kentzen diozu. Arraina zapal dutako pasta da (surimi) eta haragia txikituta dago. Jogurta edan eta gazta igurzten duzu... Zure aitzakia janaria ez zitzaizula gustatzen zen eta lau goragale ondoren, bola egiten zitzaizula. Baina jada handitoxa zara iKOSKteko!

Terrazen ezarpenari buruz galdetuko die udalak herritarrei

Lasarte-Oriako Udalak espero du terrazen ezarpena eta ezaugarriak arautuko dituen ordenantza bat egitea. Txostena prestatzen hasi aurretik, gai horri buruz galdetuko die herritarrei; irailaren 26ra arte, osteguna, jasoko ditu haien iritziak eta proposamenak.

Ordenantzaren helburua da ostalaritzako jardueretarako

terrazak ezartzeko baldintzak arautzea, haien inguruan bizi direnen atsedenearekin bateragarriak izan daitezen.

Herritarrei galdetuko die terrazak ezartzeko baldintzei, ordutegiei eta baimenei buruz. Lasarteoriatarrek aukera ugari dituzte euren iritziak plazaratzeko: udaleko erregistroan, partehartzea@lasarte-oria.eus helbide elektronikoan edo udalaren web orrialdean topatuko duten galdetegian.

ELECTRICIDAD ARREGUI

Lanerako buelta errazagoa izan dadin

Janaria eta edaria hotz edo bero mantentzeko, aukera zabala duzu

Eta ez ahaztu ogitartekoa!

Termoak

Botila termikoak

Janaria eramateko poltsak

Kale Nagusia 39
LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 | 600 857 586
www.electricidadarregui.com (on-line denda)

Garraiobide jasangarrien aldeko apustuan tinko

Autoaren gehiegizko erabilpenaz eta horren ondorioez jabetu, eta bestelako garraiobide jasangarriez kontzientzia hartzeko asmoz, aurten ere mugikortasun astea antolatu du udalak. Datorren astean ekintza ezberdinak izango dira, astelehenetik larunbatera

Txintxarri

Europako mugikortasun astearekin bat egingo du Lasarte-Oriak ere. Datorren asterako, ekintza bat baino gehiago antolatu dituzte, eta herritarrak garraio jasangarriak erabiltzearen garrantziaz jabetu nahi dituzte, eta horiek erabiltzera bultzatu. *Ibili gurekin* aukeratu dute aurtengo egitasmoaren lelo gisa.

Irailaren 23an eta 24an, kale inkestak egingo dituzte, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara. Horien bidez, herritarrek mugitzeko erabiltzen dituzten garraiobideen inguruko informazioa bildu asmo dute.



Asteazkenean aurkeztu dute aurtengo mugikortasun astearen programa. TXINTXARRI

Asteazkenean, irailak 25, goizeko 10:00etatik 14:00etara, azoka eguna baliatuz, mugikortasun jasangarriaren berri emateko postu informatiboa jarriko dute, eta orkatilako islatzaileak banatuko dizkiete gerturatzen direnei.

Hilaren 26an, ostegunean, bizikletak konpontzeko tailerra izango da. Okendo plazan egingo dute, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Hurrengo egunean, irailaren 27an, Biyak Bat elkartearekin batera, ibilbide osasungarria egingo dute, oinez. 11:00etan abiatuko dira Okendo plazatik, eta ordubeteko iraupena izango du. Amaieran, hamaiketako eskainiko diete parte hartzaileei.

Arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara, puzzle baten piezak aurkitzeko ekintza bat egingo dute. Mugikorraren laguntzar aritu beharko dira, eta sari bat zozkatuko dutela iragarri dute: 100 euroko bonua Aterpeako dendatan gastatzeko.

Astebururako ere izango dira ekintzak. Irailaren 28an, bizikleten bigarren eskuko azoka izango da. Goizeko 11:00etan

hasi eta 12:00ak bitarte iraungo du, baina bizikleta salgai jarri nahi duenak, 09:30etik 10:00etarako tarte izango du plazara gerturatzeko. Eguraldi txarra eginez gero, azoka Loidibarrengo pilotalekura lekualdatuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Azoka amaituta eta Okendo plazatik abiatuta, bizikleta martxa egingo dute Lasarte-Orian barrena. 11:00etatik 12:00etara, herriko txoko ezberdinak bizikleta gainean egiteko aukera izango dute herritarrek. Parte hartzaile bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eramatea ezinbestekoa da.

Argazki lehiaketa eta tailerrak

Mugikortasun astean parte hartzen dutenek, argazki lehiaketan parte hartzeko aukera ere izango dute. Irabazleak 100 euroko bigarren bonu bat eskuratuko du, hori ere, Aterpeako dendetan gastatzeko.

Bestalde, herriko ikasleekin ere landuko dute mugikortasun jasangarriaren gaia; tailerrak egingo dituzte ikastetxeetan.

Euskal jantzia egiteko aukera Ttakunen eskutik

Aurten jantzi tradizionala egiteaz gain, Ane Albisuren eskutik, era egokian nola jantzi ere ikasi ahalko dute ikastaroan izena ematen duten herritarrek. Urrian eta azaroan eskaintzen diren ikastaroen izen-ematea ireki da

Nerea Eizaguirre

Uda lanpetua izan du Ione Artola herritarrak. Woody Allenen *Rifkin's festival* pelikulan jostun lanetan egon da. Kontratuko konfidentzialtasun klausula dela eta, ezin digu ezer kontatu, baina esperientzi berri horrek indarrak eman dizkio ikasturte berri honetarako. Ttakunek antolatzen duen euskal jantzi tradizionalako ikastaroko irakaslea da. Aurten berrikuntza bat dakar, tradiziozko jantzietan aditu den Ane Albisuk nola jantzi azalduko du ikastaro amaieran.

Errotua dagoen ikastaroa da jantzi tradizionalena. "Urte pila dira ikastaroa ematen hasi

nintzenetik, ez dakit ziur zenbat diren", adierazi du Ionek.

Oso gustura ibiltzen da herritarrei euskal jantziak egiten irakasten. "Oso giro ona dago eta oso pozik nago egiten duten lanarekin. Azken urteetan gainera, adin guztietako jendea animatu da eta gizonik ere izan da".

Zerotik hasi eta jantzi osoak egiten erakusten die. "Lehenik, ikerketa lana egiten dugu. Ahal den toki guztietatik informazioa jasotzen saiatzen naiz. *Atondu* liburua eramaten dut, Internetetik ateratako irudiak, aurreko urteetan egin diren jantzien argazkiak eta Segurako dantza

txapelketako jantziei ere argazkiak ateratzen dizkiet", jakitera eman digu.

Izan ere, adierazi du urtero-urtero dagoela berrikuntzaren bat, eta ikasleak horiek egitera animatzen direla. "Zerbait ezberdina egin behar baitugu", adierazi du.

Josten dakitenetik, jostorraz bat inoiz hartu ez dutenetara. Maila guztietako jendea egon da ikastaroan. Artolak guztiei erakusten die eta haiek adi-adi entzuten dutela jakitera eman du. "Mozten edo josten daudenean bata besteei begiratzen diote nola egin ikasteko. Edo zerbait berezia badago eta denentzat

interesgarria bada, guztiei azaltzen diet".

Astearte eta ostegunetan 15:30etik 17:30era dira saioak. Baina ikastaroko orduak ez dira nahikoak, Ionek onartzen duen bezala. "Asteartetik ostegunera ez dago ia denborarik eta ostegunean etxeko lanak eraman nahi dituzte, baina beti ez da posible izaten".

Hilabeteko ikastaroa da. Urrian edo azaroan parte hartu daiteke, baina askok bietan izena ematen dute. "Pazientzia behar dutela esaten diet. Bi hilabetetan jantzi bat egiteko denbor dagoela. Nik beti esaten diet, ez dago ezer zailik, lan gutxiago edo gehiago dauka.

Jostea ez da bi ordu eta kitto, josteari ordu asko sartu behar zaizkio orokorrean".

Aurten gainera, berrikuntza bat aurkeztu digu: "Ane Albisurenkin lan egin dut uda honetan eta ikastaroaren berri eman nion. Berak jantziak amaitzean saio batera etorri eta era egokian nola jantzi azalduko zigula esan zidan".

Ikastaroetako izena ematea martxan da dagoeneko. Elkarteak 22 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, aldiz, 25 euro. Interesatuak Ttakuneko bulegoan, kultura@ttakun.com edo 943 371 448 telefonoan egin dezakete inskripzioa.



lazko ikastaroan egin ziren jantziak. TXINTXARRI

Koloretako zintak zintzilik, Erdi Arora bidaia

Xacobeo Azokak hartuko ditu Lasarte-Oriako kaleak, asteburuan. Igandera bitartean azokaz, kale ikuskizunak eta beste hainbat ekintzez gozatzeko aukera izango da

Txintxarri

Herriko kale eta txoko ezberdinetan koloretako zapiak zintzilikatuta, Erdi Aroko herri bihurtu dute Lasarte-Oria. Laugarren urtez, Xacobeo azokak herria girotuko du asteburuan. Urteroko galdutako ezinezko hitzordu bihurtu da, Xacobeo Azoka. Gaur arratsaldean, 17:00etan, zabalduko ditu ateak, eta igande gauera arte ekintza ugari gozatzeko aukera izango dute herritarrek.

Musikaz eta antzerki azalagundutako kalejirak irekiko ditu azokaren ateak, eta horren ostean, ipuin kontalariak, ikuskizunak eta hegaztien erakustaldiak izango dira hiru egunez, besteak beste.

Irekiera ofiziala, ordea, larunbat goizean egingo da. Goizeko 10:30ean, aureskua dantzatzearrekin eta pregoia

irakurtzearekin batera, egun osoko egitarauari hasiera emango zaio, eta igandean jarraituko du ekitaldiak.

Aurtengo berrikuntzak

Berrikuntza nagusia, Cabalbur kanpamentua izango da, aurtun. Bertan, Erdi Aroko arropak jantzi ahal izango dituzte herritarrek, eta horiek nola egiten zituzten ere ikasi ahal izango dute. Larrugintzan, eta egur tailan ere arituko dira.

Horrekin batera, buztinarekin, ardi lanarekin, eta beste hainbat eskulanetan aritzeko tartea ere izango dute bertaratzen direnek.

Guztira 105 postuk –tartean daude Lasarte-Oriako batzuk– parte hartuko dute, eta askotariko produktuak erosi edo ikusi ahal izango dira, gaurtik igandera bitarte.




Kale ikuskizun, musika emanaldi eta tailer ugari izango dira aurtengo laugarren Xacobeo Azokan. TXINTXARRI

LEKU GUZTIETAN KULTURA

Emanaldiak

Lasarte-Oria 2019



DUPLA

Hip hop musika urbanoa, pop eta elektronika nahasketarekin

Irailak 20

Lekua:
Kale Nagusia
(Brigidarren komentua)




BOSSA QUARTET

Estilo propioko Bossa Nova, jazz eta funk musikarekin fusionatuta

Irailak 27

Lekua:
Jaizkibel Plaza



EMANALDI GUZTIAK
19:00etatik 20:00etara



OSTIRALA 20

- 17:00 Azokaren irekiera
- 17:30 Eulali ipuin kontalaria
- 17:45 Hegazti harraparien erakustaldia
- 18:00 *El Ciclope alado* eta *El unicornio magico* kale ikuskizunak
- 18:30 Aireko eta zirkuko ariketak
- 19:00 Eulali ipuin kontalaria eta Acibreira taldearen emanaldia
- 19:30 Hegazti harraparien erakustaldia
- 20:30 *El clan de los guerreros* antzerkia
- 21:00 Tailer eta erakusketen ibiziera, eta *Duendes magicos*
- 22:00 Acibreira taldearen emanaldia

LARUNBATA, 21

- 10:30 Kalejira nagusia. Azokaren irekiera ofiziala auresku eta pregoiarekin
- 11:00 Merkatuaren Cabalbur kanpamentuaren irekiera. Hegazti harraparien erakustaldia. Zuzeneko musika eta antzerkia
- 11:30 Erdi aroko borrokak
- 12:00 *Panelo Circus Show*, eta kalejira Xiribarik lagunduta
- 12:30 Acibreira taldearen emanaldia

IGANDEA, 22

- 12:45 Eulali ipuin kontalaria eta txobongilo erakustaldia
- 13:00 Zirkuko ariketak eta erdi aroko borrokak
- 13:30 Patxi eta Jorgito merkatuan barrena. Hegazti harraparien erakustaldia, *Panelo Circus Show* ikuskizuna, eta *Duendes magicos*
- 14:00 Erdi aroko borroken erakustaldia, eta Acibreira taldearen emanaldia
- 17:00 Azokaren eta Cabalbur kanpamentuaren irekiera. *Despertad de la siesta* kalejira. *Panelo Circus Show* ikuskizuna
- 17:30 Erdi Aroko borrokak eta hegazti harraparien erakustaldia. Eulali ipuin kontalaria
- 17:45 Acibreira taldearen emanaldia
- 18:00 Zirkuko ariketak eta *Duendes magicos*
- 18:30 Hegazti harraparien erakustaldia
- 19:00 Eulali ipuin kontalaria, eta kalejira
- 19:30 Erdi Aroko borrokak
- 20:00 *Panelo Circus Show* ikuskizuna
- 20:30 *Duendes magicos*
- 21:00 Tailer eta erakusketen ibiziera. Erdi Aroko borrokak, eta Acibreira taldearen emanaldia
- 22:30 Su eta antzerki ikuskizuna

IGANDEA, 22

- 11:00 Azokaren eta Cabalbur kanpamentuaren irekiera
- 11:30 Acibreira taldearen emanaldia
- Panelo Circus Show* ikuskizuna, eta *Duendes magicos*
- 12:00 *La Reina de los guerreros de los valles del Kuruma* eta Eulali ipuin kontalaria
- 12:15 Hegazti harraparien erakustaldia eta *Duendes magicos*
- 12:30 Zirkuko ariketak eta *Panelo Circus Show*
- 13:00 Patxi Jorgito merkatuan barrena, eta Eulali ipuin kontalaria
- 13:30 Acibreira taldearen emanaldia
- 14:00 Hegazti harraparien erakustaldia
- 17:00 Azokaren irekiera
- 17:30 Eulali ipuin kontalaria eta *Ciclope alado* eta *El unicornio magico* ikuskizunak
- 18:00 Zirkuko ariketak
- 18:30 *Duendes magicos*
- 19:00 Acibreira taldearen emanaldia
- 19:30 Kalejira
- 21:00 Azokaren itxiera

Erroak gogoan

Ama Guadalupeko elkarteko sortzaileak presente egon dira

Extremadura etxeko kideek erkidegoko zaindaria den Ama Guadalupekoren ohorezko jaiak egin dituzte irailaren 13tik 15era. Askotariko ekintzak antolatu ditu hiru egun hauetan herriko elkarteak. Aurten zendu diren Juan Sanchez eta Alejandro Fernandez elkarteko sortzaileak izan dituzte gogoan. Ostiralean Extremadurako ereserkia abestuz eta banderak altxa zituzten. Ostean afaria izan zen elkartean; gero, dantzaldia, eta migak goiztiarrentzat. Larunbat goizean meza izan zen ekitaldi nagusia. Haurrentzako tailerrak ere izan ziren. Bazkalostean, Brotes koru eta dantza taldearen emanaldia izan zen. Gauean, berri, bazkideen afari ofiziala izan zen. Honetan Antonio Perez bazkideari oroigarria eman zioten elkarteko kide 25 urtetan izateagatik eta Alejandro Fernandezi buruzko bideo bat ikusi ahal izan zen. Ostean, ederki astindu ahal izan zuten gorputza Trio Imperial taldearen eskutik. Igandean, Duende, Gitanillas eta Zambra taldeen dantza emanaldia izan zen goizean. Arkumeki-gisatua bazkaldu eta gero euria ez zen oztopo izan, bolo txapelketa ospatzeko. Jaiari amaiera emateko banderak jaitsi zituzten.



Carlos Bermejo lehendakaria eta zuzendaritzako kideak bandera igoeran. TXINTXARRI



Pili Fernandezek bere aitaren omenezko argazki-bideoa aurkeztu zuen larunbateko bazkideen afarian. T. VALLES



Euriaren ostean, elkarteko hainbat kide animatu ziren bolo txapelketan parte hartzera.



Larunbat goizean elkarteko sortzaileak gogora ekarri zituzten elkartean egindako mezan.



Giro ederra egon zen parte hartzaile eta ikusleen artean. TXINTXARRI



Trio Imperial, argazkian, eta Aguirre anaiak izan dira aurten gauak girotu dituzten taldeak. TXINTXARRI



Igande goizean, Andaluziako xarma eraman zuten Semblante Andaluz elkarteko dantza taldeek Jaizkibel plazara. T. VALLES



Nafarroako Brotes taldeko kideak izan ziren mezan laguntzen. ISAAC FARRÉ RICO



Adin guztietarako ekintzak izan dira hiru egun hauetan. Guztiek gozatu dute parte hartzen edo ikusten. TXINTXARRI

Bederatzigarrena, arrakastatsuen

18.000 zale Hipodromoan

Aurtengo Donostia Festibala izan da denetan jendetsuena: 18.000 pertsona gerturatu dira Hipodromora jaialdiak iraun dituen bi egunetan. Kartel erakargarria eta eguraldi ona lagun, lau eszenatokitako ikuskizunez gozatu dute ikus-entzuleek. Rukula taldea arduratu zen jaialdia irekitzeaz pasa den asteko ostiralean –Oihan Agirretxe herritarrek jotzen du bateria–. Zaleak dantzan jarri zituen euren musika estilo nahasketek. Ira Rap madrildarrek hartu zuten lekukoa; euren doinu feminista zorrotzekin astindu zituzten Hipodromoko bazterrak. Ondoren, emanaldi erauntsia: Lagrimas de Sangre, Joseba Irazoki, La Pegatina, Mala Rodriguez... Horiek izan ziren egun horretako emanaldi batzuk.

Larunbat gaueko protagonistak musikari euskaldunak izan ziren. Leire Villanueva *Iseo* nafarrak emanaldi indartsua eskaini zuen Dodosound DJarekin eta The Mousehunters taldekoekin batera. Gatibuk hartu zion lekukoa eszenatoki nagusian: Alex Sardui eta enparauek saltoka eta dantzan jarri zituzten euren letrak buruz zekizkitzen ikus-entzuleak.



Aldarrikapen doinu zuten Hipodromoan Ira Rap taldeko abeslariak. TXINTXARRI



Lagrimas de Sangre rap talde kataluniarrak estreinatu zuen eszenatoki nagusia ostiral arratsaldean. TXINTXARRI



Rukularen estilo nahasketek dantzan jarri zituzten ikus-entzuleak. Eskuinean, Oihan Agirretxe herritarra, bateria jotzen. TXINTXARRI



La Pegatinaren kontzertua, ikus-entzulez lepo. Ostiral gauean jo zuten. TXINTXARRI



Mala Rodriguez kanariarrak hankaz gora jarri zuen Hipodromoa larunbat goizaldean. Inoizko ediziorik jendetsuena izan da: 18.000 pertsona gerturatu dira festivalak iraun dituen bi egunetan. TXINTXARRI



Leire Villanueva *Iseo* musikari nafarrak indarrez betetako emanaldia eskaini zuen. TXINTXARRI



Gatiburen zuzeneko indartsuak ez du hutsik egiten; ikus-entzuleek ez zioten dantza egiteari utzi kontzertu osoan. TXINTXARRI

Lasarte Festibala eta identifikazio bat Elebeltzen

TXINTXARRI

Donostia Festibalaren asteburu berean ospatu du Elebeltz Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topaguneak musika jaialdi alternatiboa: Lasarte Festibala. Herriko talde hasiberriei bozgorailua jarri zieten antolatzaileek larunbatean zehar.

LOUH taldeko musikari gazteek ireki zuten larunbateko emanaldi sorta: hainbat rock talde famaturen bertsioekin gogotik egin zuten dantza ikus-entzuleek. Gauean egin zituzten gainerako kontzertuak. Lapur Gvng bikoteak gazteen artean gero eta gehiago entzuten diren trap doinuak eraman zituen topagunera.

Trap estilotik, Jamaikako musika doinuetara: reggaez blaitu zuen Kingston



ELEBELTZ TOPAGUNEA

Sound DJak Elebeltz. Liluraren Kontra izan zen eszenatokira igo zen hurrengo taldea. Eta, gaua bukatzeko, Kinada. Hainbat bertsio ezagun taularatu zituen herriko laukote gazteak: Berri Txarrak *Denak ez*



ELEBELTZ TOPAGUNEA

du balio edo System Of A Down armeniarren *Toxicity*, besteak beste.

Larunbateko festaren ondoren, gunea garbitzera joan ziren Elebeltzeko zenbait kide igande goizean. Lasarte-Oriako

zenbait udaltzain etorri, eta pertsona bat identifikatu zuten; bere NAN txartelari argazki bat atera zioten. Horrez gain, topagunearen irudi batzuk atera zituzten eta zenbait galdera egin.

Duela zazpi urte sartu ziren herriko hainbat gazte Kale Nagusia 62 zenbakiko lokal horretan; fabrika bat zen lehen, baina krisi ekonomikoaren ostean hutsik geratu zen. Lasarteoriatar talde horrek gunea txukundu eta konponketak egin zituen, eztabaida eta sorkuntza askerako gune bat sortzeko helburuz.

Belaunaldi berriek hartu dute euren lekukoa orain. Berritze lanak egin ostean, aurtengo ekainean atea ireki zituen berriro Elebeltzek. Berririkiera jaialdi bat egin zuten topagunean bertan: Skakeo, Txorroskilo, Rodeo, Maialen Aristegi eta DJak aritu ziren egun horretan.



Hamabi jokalarik eta Asier Acuriola entrenatzaileak osatzen dute Ostadar Boleibola. Astean bitan entrenatzen dute. TXINTXARRI

Ametsa errealitate bihurtu dute

Hamabi jokalarik osatzen dute Ostadar Boleibola. Urrats zailena eginda, taldea sortzearena, helburu ugari dituzte: elkar ezagutzea, teknika hobetzea, eta, batez ere, gozatzea

Iñigo Gonzalez Sarobe

Idea eta proiektu zoragarrienak eta zoroenak lagunartean jaiotzen dira askotan. Maiatzeko arratsalde batean elkartu ziren

Leire Vega, Sara Prieto eta Ainhoa Gonzalez, eta gogoratzen hasi ziren boleibolean aritzen zireneko garaiak, Lasarte-Usurbil BHIIn. Duela bizpahiru urte arte

aritu ziren, kirol egitasmo hori bertan behera geratu zen arte, baliabide nahikorik ez zeukatelako. Taldea berreskuratzearren ideia denek zeukaten buruan; Vegak, batez ere. Arratsalde horretan erabaki zuen ahal zuen guztia eta gehiago egingo zuela Lasarte-Oriak boleibol talde bat edukitzeko.

Urrats zailena, eginda

"Bilerak, administrazio tramiteak, jokalarien fitxak... zaila izan da bidea, baina ikaragarri ikasi dut, eta helburua lortu: boleibol talde bat daukagu herrian berriro", nabarmendu du Vegak. Sailaren koordinatzailea da, eta jokalaria ere bai. Bera arduratu da Ostadar SKTrek harremanetan jartzeaz.

Astean bitan egiten dituzte lan saioak, Maialen Chourraut kiroldegian: astelehenera, 18:30etik 20:00etara; ostiraletan, 16:00etatik 17:30era. Asier Acuriola da entrenatzailea, orain arte Donostiako Suma Aldapetan aritua -klub horretako infantilak entrenatzen jarraituko du aurten-. "Pazientzia handia dauka gurekin eta asko laguntzen digu; nabaritzen da jokalaria izan zela duela urte batzuk", azpimarratu du Vegak.

Irailean hasi dira lanean urdin-beltzak. Lehenengo saioetan hasiberriekin pasa ditu minutu gehien Acuriolak. Izan ere, jokalaria batzuk aurten murgildu dira boleibolean. Hamabik osatzen dute taldea. Herritarrak dira gehienak, eta gazteak: 1998 eta 2002 urteen artean jaiotakoak. 1984koa da beterano bakarra.

Jokalarien adinak kontuan hartuta, senior kategorian lehiatu beharko lukete, baina erabaki dute jubenetan ariko direla aurten, euren helburu nagusia ez delako ahalik eta partida gehien irabaztea; lehenesten dute elkar ezagutzea, boleibolean ongi jokatzen aritzea, eta, batez ere, disfrutatzea. Horiak dira aurtengo denboraldiko xede nagusiak. Urrian ekingo diote lagunartekoak jokatzeari; liga, aldiz, datorren urtean hasiko da, urtarrilean. Lehen garaipena, aurtengo zailena, poltsikoan dute honezkero: taldea sortu dute; ametsa errealitate bihurtu dute.

Euskotren ligan arraun egiten jarraituko du Hondarribiak

Nagusi izan da playoffean Ama Guadalupekoa: asteburuan jokatutako bi estropadak irabazi ditu

Txintxarri

Datorren urteko Euskotren ligako lau taldeak gipuzkoarrak izango dira berriro ere: Orio, Arraun Lagunak, Donostiarra eta Hondarribia. Azken horiek pasa den asteburuan poltsikoratu zuten kategoria gorenean arraun egiten jarraitzeko txartela, Bizkaian. Bermeon eta Portugaleten jokatu zituzten playoffeko bi estropadak. Horietan parte hartu zuen Intza Fernandez lasarteoriatarrek.

Hibaikarekin eta Zumaiarekin neurtu zituen indarrak Ama Guadalupekoa. Nagusitasunez aritu zen asteburuan, larunbateko eta igandeko estropadak irabazi zituelako. Bermeon jokatu zuten lehenengo jardunaldia. Tarte polita lortu zuen Hondarribiak: bederatzi eta hamalau segundo atera zizkien errenteriarrei eta zumaiarrei, hurrenez hurren. Igandean ere bizkorrena izanda, Euskotren ligan jarraituko du.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
IBERDROLA LIGA
Real Sociedad - Betis Igandea. 16:00. Zubietako Z7 zelaia, Donostian.
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Intxaundi KE Igandea. 10:30. Michelinen.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Oiartzun KE Larunbata. 17:15. Michelinen.
JUBENILEN 1. MAILA
Segura - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Alustiza, Seguran.
Urnieta - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Urnietan.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Tolosa - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Usabal, Tolosan.

KADETEEN 1. MAILA
